

GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

URTEKO TXOSTENA - 2023

> 2024ko otsaila

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas

GIPUZKOA

AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatzen ditu hilero Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, lurralde horretako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera. Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoaenez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da. Argitalpen honetako informazioa lortzeko, **Gipuzkoan sozietate egoitza duten enpresa ez-finantzarioek** aurkeztutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpenak erabili dira.

Hileroko txosten horien osagarri bezala, urteko txosten hau prestatzen da. Izan ere, enpresa horien BEZaren urteko aitortpenak ere oso erabilgarriak dira; aldagai nagusien urteko bilakaera zein izan den kalkulatzeko aukera emateaz gain, informazio estrukturalari buruzko oso informazio interesgarria ematen du. Dena den, ez da ahaztu behar lagin bat aztertzen ari garela, eta nahiz eta adierazgarritasun handia izan lagin horrek Gipuzkoako ekonomian, ezaugarri jakin batzuk dituela, eta ondorioz, datuak orokortzerakoan kontuz jokatu behar dela.

Urteko aitortpenetan jasotako informazioa hiru atal nagusitan banatuta dago:

1. **Sektorekako sailkapena.** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan aitortutako epigrafe nagusitik abiatuta, enpresak 20 jarduera talde nagusitan sailkatuta daude.
2. **Enpresen tamainaren araberako sailkapena.** Horretarako, enpresek 2023an izandako langile kopurua hartu dugu kontuan, eta 5 taldetan banatu ditugu.
3. **Eskualdeen araberako sailkapena.** Enpresek aitortutako sozietate helbidearen udalerria kontuan hartuta, eskualdeen araberako sailkapen bat egiten dugu, eta bertan Donostia beste eskualde bat gehiago da, probintziako hiriburua izateak ematen dizkion berezigarriengatik.

EZAUGARRI NAGUSIAK


➤ **2023an Gipuzkoako enpresen salmentak %2,9 igo dira**

2022. urtea salmenta osoen +%13,2ko hazkunde nabarmenarekin itxi zen. Horretan eragina izan zuten, oraindik ere, 2020ko pandemiak jarduera ekonomikoan eragindako gora beherek. 2023an salmentak modu apalagoan hazi dira: +%2,9. Igoera gehienbat barruko salmentetan eman da (+%4,2); izan ere, esportazioak +%0,8 besterik ez dira igo.

1. taula. GIPUZKOAKO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (urte arteko bariazio tasa)

	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak	Inportazioak
2006	7,1	6,6	8,4	11,9
2007	7,1	6,1	10,0	12,3
2008	0,0	-1,5	4,6	0,0
2009	-20,5	-20,2	-21,6	-37,4
2010	2,1	-4,6	21,6	28,4
2011	0,5	-5,0	12,8	11,0
2012	-5,1	-8,0	0,4	-8,7
2013	-3,6	-5,4	-0,5	-1,0
2014	3,3	3,3	3,2	1,2
2015	4,9	3,0	8,2	11,3
2016	0,4	1,7	-1,8	-5,6
2017	7,5	9,5	4,1	14,0
2018	6,6	5,8	8,0	10,5
2019	2,8	2,5	3,4	3,0
2020	-10,1	-9,1	-11,9	-13,5
2021	16,8	15,8	18,7	22,0
2022	13,2	12,3	15,0	21,5
2023	2,9	4,2	0,8	-6,9

1. grafikoa – SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



EZAUGARRI NAGUSIAK


➤ **Pixka bat jaitsi egin da esportazioek Gipuzkoako enpresen salmentetan duten garrantzia**

2023an nazioarteko testuingurua konplexua eta ziurgabetasun maila handikoa izan da. Gainera, gure bezero nagusiak diren herrialdeetako ekonomiak atzeraldi/geldialdia egoera batean sartu dira. Ondorioz, esportazioen hazkundea oso ahula izan da: +%0,8. Barruko salmentek portaera hobea izan denez (+%4,2), esportazioek salmenta guztien gainean duten pisua %37,7tik %36,9ra jaitsi da; eta, aldi berean, barruko salmenten pisua %62,3tik %63,1ra igo da.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar 2008ko krisiaren aurreko urteetan, esportazioen pisua %25 ingurukoa zela; beraz, hamabost urteren buruan, kanpoko salmentek 10 puntuko pisu erlatiboa irabazi dute.

Beraz, Gipuzkoako enpresen kanpo merkataritzak erresilientzia handia erakutsi du, eta hazkunde ekonomikorako eta enplegua sortzeko palanka nagusietako bat izaten jarraitzen du.

2. grafikoa – Salmenta osoek 2022 eta 2023an izandako banaketa

➤ **Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso handia da**


Gipuzkoako ekonomiak kanporako irekiera maila oso altua du: salmenten 100 euro bakoitzeko 36,9 euro kanpoko merkatuetara bideratzen dira. Gipuzkoako enpresen esportazioen 3 bezero nagusiak, hurrenkera horretan, Frantzia, Alemania eta Estatu Batuak izan dira 2023an; guztira, esportazioen %34a dira. Baina horrek beste ondorio bat ere badu: Gipuzkoako enpresak gero eta sentiberagoak dira herrialde horien bilaera ekonomikoarekiko.

Esportazioak xeheago aztertuz gero, ikusten da EBren barrura egindakoak hazi egin diren bitartean (+%2,3), Europar Batasunaren kanpora egindakoak jaitsi egin direla (-%1,0).

Horren ondorioz, EBra egindako esportazioek pisua irabazi dute: %54,3tik %55,1era (0,8 puntu gehiago). Bestalde, munduko gainerako herrialdeetara egindako esportazioak %44,9 dira, eta iaz %45,7 izan ziren.

EZAUGARRI NAGUSIAK


3. grafikoa – Esportazioek EBra eta munduko gainerako herrialdetara 2022 eta 2023an izan duten banaketa



2023an inportazioak %6,9 jaitsi dira. Gipuzkoako enpresen inportazioak hornitzen dituzten herrialde nagusiak Alemania, Frantzia, Txina eta Italia dira. Lauren artean inportazio guztien erdia baino gehiago metatzen dute.

Aztertutako bi eremuetatik egindako erosketak jaitsi diren arren, EBtik egindakoak EBtik kanpotik egindakoak baino askoz gutxiago jaitsi dira (-%2,4 eta -%17,9, hurrenez hurren). Horregatik, EBtik egindako inportazioen pisu erlatiboa 3,5 puntu igo da, 2022ko %70,7tik egungo %74,2ra. Horrela, Gipuzkoako enpresen inportazioen ia 3/4 EBko herrialdeetatik datoz.

3. grafikoa - Inportazioek eremuen arabera 2022 eta 2023an izan duten banaketa



Esportazioak +%0,8 hazi dira eta inportazioak -%6,9 jaitsi; ondorioz, merkataritzako estaldura ratioa edo saldoa igo egin da: 2022an %204 zen, eta orain %221. Datu hori oso positiboa da, esportazioak inportazioak halako bi direla esan nahi baitu. Kontuan izan behar dugu datu horiek txosten honetan aztertutako laginari dagozkiola; Gipuzkoako ekonomia osoa kontuan hartzen badugu, estaldura ratioa zertxobait txikiagoa da, %190 ingurukoa.


SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA *

➤ **Sektoreen arteko banaketan, industriak pisua galdu du 2022aren aldean (-0,9 puntu); aldiz, irabazi egin dute eraikuntzak (+0,3 puntu) eta zerbitzuek (+0,6 puntu)**

2023an salmentak igo egin dira oinarritzko hiru sektoreetan: industrian (+%1,2), eraikuntzan (+%10,4) eta zerbitzuetan (+%4,4).

Horrela, eta industria sektoreko salmenten hazkunde txikiagoaren ondorioz, aldaketa txiki bat gertatu da sektoreen arteko banaketan. 2023an, industria salmenten %53,4 da, eta aurreko urtean, berriz, %54,3 izan zen. Eraikuntzaren sektoreko partaidetza 2022ko %3,9tik %4,2ra igo da. Zerbitzuen sektoreak ere gora egin du, Gipuzkoako enpresen salmenta guztien %41,8tik %42,4ra.

5. grafikoa - Salmenta osoek sektoreen artean 2022 eta 2023an izandako banaketa




* Aztertutako laginak bi ezaugarri nagusi ditu: alde batetik, enpresa finantzarioak kanpo geratzen dira; eta bestetik, hilero BEZaren aitorpena aurkezten duten enpresak bakarrik hartzen dira; hau da, nolabait zerbitzu sektoreak ordezkagarritasun txikiagoa du, eta enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkaturik laginean. Azkenean, bi faktore horien ondorioz, industriaren pisua benetakoa baino handiago da; eta alderantziz, zerbitzuena txikiagoa. Horrela, 2022ko EUSTATen kontu ekonomikoen arabera, Gipuzkoan industriak Barne Produktu Gordinaren %28,2 metatzen zuen, eraikuntzak %5,5 eta zerbitzuek %65,6.

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ **Industria garrantzitsua izan arren, sektore maila xehatuago baten ikuspuntutik, merkataritzaren azpisektorea aipagarriena da, salmenta osoen %27,0 hartzen baitu**

Sektoreak 20 taldetan sailkatuta, agerian geratzen da merkataritzaren azpisektorea aipagarriena dela 2023an izandako salmenta osoetan (kopuru osoaren %27,0); horren atzetik, tarte luze batera, beste hauek aurkitzen dira: makineria (%14,1), beste zerbitzu komertzialak (%7,5), garraio-materiala (%7,4) eta, azkenik, garraioa eta komunikazioak (%7,1).

6. grafikoa - 2023an salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




2022arekin alderatuta pisu gehien irabazi duen adarra garraio-materiala izan da, 1,6 puntuko hazkundearekin (salmenta osoen %5,8 izatetik %7,4 izatera pasa da). Pisu erlatiboaren galera handiena oinarritzko metalgintzan eman da (%6,9tik %5,7ra pasa da, 2022an baino 1,2 puntu gutxiago).

2022arekiko bariozioari dagokionez, aztertutako 20 sektoreetatik 9tan salmentak hazi egin dira. Igoera handiena garraio-materialean eman da (+%30,8), eta ondoren beste zerbitzu komertzialetan (+%10,5) eta eraikuntzan (+%10,4). Beste 11 adarretan salmentak jaitsi egin dira 2022tik. Beherakada handiena papergintza eta grafikak adarrean eman da (-%20,6); jarraian datoz oinarritzko metalgintza (-%15,1) eta Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza (-%13,2).

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA


7. grafikoa - 2023an salmenta osoen bariazio handienak eta txikienak izan dituzten adarrak (%)



➤ Industria adarrak dira nagusi Gipuzkoako enpresen esportazioetan

Gipuzkoako enpresen kanpo salmenten oinarria ekipo ondasunei lotutako industria adarrak dira: makineriari eta garraio-materialari dagokienez, esportazio guztien %23,6 eta %14,3 dira, hurrenez hurren; oinarrizko metalgintza %10,9 da, merkataritza %8,9 eta metalezko gaiak %8,7. Bost adar horien artean Gipuzkoako esportazio guztien %66,3a hartzen dute.

8. grafikoa - 2023an esportazioen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

Adar esportatzaile horien artean, 2022. urtearekin alderatuta, pisu erlatibo gehien irabazi duena garraio-materiala izan da: %11,7 izatetik %14,3 izatera igaro da, aurreko urtean baino %23,0 gehiago esportatu baitu. Makineriak 1,0 puntu irabazi ditu (%22,6tik %23,6ra pasa da), esportazioak %5,2 igo baitira 2022arekin alderatuta.

- **Garraio-materialaren adarrean salmenten %71,2 kanpoan egiten da, eta enpresen multzo osoaren batez bestekoa %36,9 da**

Esportazioek salmenta guztien aldean zer pisu hartzen duten begiraturik, ikus daiteke 8 adarretan beren salmenten erdia baino gehiago kanpoan egiten dela.

9. grafikoa – 2023an esportazioek salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)



Garraio materialaren adarrean esan daiteke salmenta osoen ia-ia hiru laurdenak (%71,2) kanpoko merkatuetan egiten direla; aldiz, enpresen multzo osoaren batez bestekoa %36,9 da. Beste 7 adarrek ere erdia baino gehiago kanpoan saltzen dute: oinarrizko metalgintza (%70,9), makineria (%61,8), metalezko gaiak (%57,8), metalgintzakoa ez den industria (%55,0), material elektrikoa (%52,4), metalezko eraikuntzak (%52,0) eta kimika (%50,3).


TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA *

➤ **Enpresa txiki eta ertainek pisu oso handia dute Gipuzkoako ekonomian: salmenta osoen %66,3 egiten baitituzte**

Ezaguna da Gipuzkoako enpresa sarearen barruan enpresa txiki eta ertainak nagusi direla. 250 langile baino gutxiago dutenak halakotzat hartuta, salmentetan duten garrantzi kuantitatiboa handia da, salmenta horien %66,3 egiten baitituzte; hau da, salmentetako 100 euro bakoitzeko, 66 euro enpresa horiexek saltzen dituzte.

Bestetik, enpresa handienek (250 langile edo gehiago) salmenta osoen %33,7 egiten dute.

10. grafikoa - Enpresa taldeak 2023an salmenta guztien aldean izandako pisu erlatiboarekiko (%)



2022. urtearekin alderatuta, salmenta jaitsi egin dira 25 langile baino gutxiago dituzten enpresetan (-%1,6) eta 100-250 langile bitartean dituztenetan (-%2,3). Beste guztietan salmentan igo egin dira: +%9,6 handienetan (250 langile baino gehiago), +%2,6, 50 eta 100 langile dituzten enpresetan; eta +%2,2, 25 eta 50 langile dituztenetan.

* Aztertutako laginak duen ezaugarri nagusietako bat da, BEZren aitortpena hilero aurkezten duten enpresak hartzen direla; hau da, nolabait enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkatuta laginean. Beraz, errealitatean Gipuzkoan enpresa txikien dute pisua hemen erakusten dena baino handiagoa izango da.

TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA


➤ Enpresa handienek profil esportatzaile argiagoa dute

Enpresen tamainarekin lotutako hainbat faktorek enpresa handiagoak nazioartean hedatzen laguntzen dute: baliabide gehiago (finantzarioak, pertsonalak, ezagutzakoak...); arriskuak hartzeko eta ziurgabetasun inguruneei aurre egiteko gaitasun handiagoa; eskala ekonomiak aprobetxatzeko aukera gehiago..

2023ko datuen arabera, argi eta garbi geratzen da enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan kanpoan gehiago saltzen dela. Hori horrela, 250 langile edo gehiagoko enpresek beren salmenta guztien %48,1 saltzen dute kanpoko merkatuetan; enpresa txikienetan, aldiz, %13,2 da. Portzentaje hori argi eta garbi igotzen da enpresaren tamaina handitzen den neurrian

Gero eta globalizatuago eta interkonektatuago dagoen mundu honetan, internazionalizazioaren erronka ezinbesteko faktorea da enpresak mantentzeko, indartzeko eta hazteko. Azken urteotan, teknologiari esker (komunikazioak, merkatuen prospekzioa, nazioarteko marketina) kostu mota guztiak asko murriztu dira, eta horrek indartu egin du edozein enpresa, txikia izanda ere, nazioartekotu daitekeenaren ideia. Hala ere, datuek erakusten dute enpresen dimentsioak eta tamainak ere garrantzia dutela.

11. grafikoa – 2023an esportazioen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA


➤ Goierrik metatzen du pisu erlatiborik handiena salmenta osoetan

Goierrik lurraldeko salmenta guztien %16,6 metatzen du, eta, 2022arekin alderatuta, 0,4 puntu irabazi ditu. Hori horrela izan da, salmenta osoak +%6,0 igo direlako, igoera orokorrak izandako +%2,9 baino askoz handiagoa, eta beste eskualde gehienetan izandakoa igoera baino handiagoa.

Donostia bigarren postuan dago salmenta osoei dagokionez: guztien %16,2, eta 0,2 puntu irabazi 2022arekiko; izan ere, salmenta osoak +%4,4 igo dira, hazkunde orokorra baino 1,5 puntu gehiago. Salmenta osoen pisu erlatiboari dagokionez, hirugarren lekuan daude egoitza Debagoienan duten enpresak, lurraldeko salmenten %13,3 metatzen baitute; eta laugarren lekuan Donostialdea dago, salmenta guztien %13,2arekin.

2022. urtearekin alderatuta, salmenta osoen hazkunderik handiena Bidasoa-Behean izan da (+%6,3), gehienbat barruko salmenten igoeraren ondorioz (+%7,3), esportazioak +%0,8 besterik ez baitira igo. Bestalde, bi eskualdetan bakarrik eman da salmenten jaitsiera, eta bietan ere oso apala: Tolosaldea (-%0,1) eta Oarsoaldea (-%0,8).

12. grafikoa - Salmenta osoen pisu erlatiboa eskualdeen arabera 2023an (%)




ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ Goierriko eta Debagoienako enpresek beren salmenten erdia baino gehiago kanpoko merkatuetan saltzen dituzte

Oro har, esan daiteke Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso altua dela; eta batez ere Goierriko eta Debagoienako enpresen kasuan. Horrela, Goierriko enpresek kanpoko merkatuetan beren salmenta osoen %57,5 saltzen dute, eta Debagoienakoak %54,2.

Aitzitik, Donostian esportazioak nekez salmenta osoen %12,1 dira, hau da, lurraldeko %36,9ko batez bestekotik oso urruti dago; horren arrazoia da eraikuntzak eta hirugarren sektoreak (merkataritza, zerbitzuak...) hiriburuan duen pisu handia.

13. grafikoa - Eskualdeen araberako sailkapena – 2023an esportazioek salmenta osoen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan jasotako datuen taulak populazio konstantearen araberako datuei dagozkie. Hau da, bariazio tasak bi urtez jarraian zergaldi berean aitortzen duten enpresen gainean kalkulatu dira. Populazio konstantearen araberako bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoez ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egozte

URTEARTEKO BARIAZIOEN LABURPENA

**1 Taula. Salmenta osoak: barrukoak eta kanpokoak.
(urtearteko bariazio tasak,%)**

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2016	0,4	1,7	-1,8
2017	7,5	9,5	4,1
2018	6,6	5,8	8,0
2019	2,8	2,5	3,4
2020	-10,1	-9,1	-11,9
2021	16,8	15,8	18,7
2022	13,2	12,3	15,0
2023	2,9	4,2	0,8

**2 Taula. Salmenta osoak produkzio sektoreen arabera
(urtearteko bariazio tasak,%)**

Epealdia	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	13,1	7,7	-1,6
2007	7,5	11,8	5,6
2008	1,8	10,5	-4,8
2009	-25,1	-11,1	-14,8
2010	6,0	-21,8	2,1
2011	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,4	0,9	3,4
2015	5,4	-7,5	6,3
2016	-0,7	-5,4	2,9
2017	6,3	5,1	9,6
2018	6,5	0,7	7,4
2019	2,6	-2,0	4,0
2020	-12,9	-14,7	-5,5
2021	21,6	-9,8	14,4
2022	14,0	11,2	12,5
2023	1,2	10,4	4,4

**3 Taula. Esportazioak eta inportazioak ingurune geografikoen arabera
(urtearteko bariazio tasak,%)**

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	UE	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira	UE	Munduko gainerako herrialdeak
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2016	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
2017	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7
2018	8,0	17,4	-5,3	10,5	8,4	18,6
2019	3,4	4,5	1,4	3,0	1,2	9,6
2020	-11,9	-12,9	-10,1	-13,5	-14,8	-9,2
2021	18,7	3,4	45,3	22,0	17,6	36,3
2022	15,0	14,3	15,8	21,5	16,8	34,3
2023	0,8	2,3	-1,0	-6,9	-2,4	-17,9

4 Taula – SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA - (urtearteko bariazio tasak,%)

Taldea	Izena	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
		2022ko pisua	2023ko pisua	Bar. 2023/2022	2022ko pisua	2023ko pisua	Bar. 2023/2022	2022ko pisua	2023ko pisua	Bar. 2023/2022	
	Guztira	100,0	100,0	2,9	100,0	100,0	4,2	100,0	100,0	0,8	36,9
01	Nekazaritza, abeltzaintza arrantza	0,0	0,0	-13,2	0,0	0,0	-12,8	0,0	0,0	0,0	0,0
02	Energia eta ura	0,5	0,5	-11,8	0,7	0,6	-18,7	0,2	0,2	0,0	19,1
03	Oinarrizko metalgintza	6,9	5,7	-15,1	3,0	2,6	-11,0	13,2	10,9	-16,7	70,9
04	Metalgintzakoa ez den industria	1,4	1,4	1,2	1,0	1,0	0,1	2,1	2,1	2,1	55,0
05	Kimika	2,2	2,1	-1,6	1,7	1,7	0,9	3,1	2,9	-4,0	50,3
06	Metalezko eraikuntzak	4,7	4,5	-1,2	3,4	3,4	4,2	6,8	6,3	-5,7	52,0
07	Metalezko gaiak	5,7	5,5	-0,6	3,9	3,7	-2,4	8,7	8,7	0,7	57,8
08	Makineria	13,8	14,1	4,9	8,5	8,5	4,3	22,6	23,6	5,2	61,8
09	Material elektrikoa	2,7	2,7	0,9	1,9	2,0	13,8	4,2	3,8	-8,4	52,4
10	Garraio materiala	5,8	7,4	30,8	2,3	3,4	55,0	11,7	14,3	23,0	71,2
11	Elikagaiak	3,7	3,9	8,7	4,6	4,9	11,6	2,1	2,1	-0,2	19,9
12	Ehungintza eta oinetakogintza	0,1	0,1	-4,7	0,1	0,1	-5,0	0,1	0,1	-4,0	38,1
13	Zurgintza eta altzarigintza	0,6	0,6	-1,4	0,6	0,6	4,6	0,5	0,4	-13,5	28,3
14	Papergintza eta grafikak	4,5	3,4	-20,6	4,1	3,1	-22,3	5,1	4,1	-18,2	44,0
15	Kautxua eta plastikoa	1,6	1,5	-2,1	1,4	1,4	4,3	2,0	1,8	-9,0	43,7
16	Eraikuntza	3,9	4,2	10,4	6,2	6,6	10,4	0,1	0,1	8,7	1,0
17	Merkataritza	26,7	27,0	4,1	37,6	37,5	3,9	8,6	8,9	4,1	12,1
18	Garraioa eta komunikazioak	7,4	7,1	-0,6	8,2	7,9	0,7	6,3	6,1	-1,7	31,8
19	Beste zerbitzu komertzialak	7,0	7,5	10,5	9,6	9,9	7,8	2,8	3,5	27,5	17,1
20	Beste zerbitzu ez komertzialak	0,7	0,7	9,8	1,1	1,1	9,4	0,0	0,0	-6,5	1,7

**5 Taula – ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA
(urtearteko bariazio tasak,%)**

TAMAINA	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
	2022ko pisua	2023ko pisua	Bar. 2023/2022	2022ko pisua	2023ko pisua	Bar. 2023/2022	2022ko pisua	2023ko pisua	Bar. 2023/2022	
Guztira	100,0	100,0	2,9	100,0	100,0	4,2	100,0	100,0	0,8	36,9
25 langile baino gutxiago	18,3	17,5	-1,6	25,3	24,1	-0,5	6,9	6,3	-9,0	13,2
25 - 49	14,8	14,7	2,2	16,1	16,0	3,3	12,6	12,5	-0,1	31,4
50 - 99	13,4	13,4	2,6	13,4	13,5	5,4	13,5	13,1	-2,0	36,2
100 - 249	21,8	20,7	-2,3	19,8	18,6	-1,8	25,1	24,2	-2,9	43,2
>=250	31,7	33,7	9,6	25,5	27,7	13,5	41,8	43,9	5,9	48,1

6 Taula – ESKULADEEN ARABERAKO SAILKAPENA
(urtearteko bariazio tasak,%)

ESKULADEAK	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
	2022ko pisua	2023ko pisua	Bar. 2023/2022	2022ko pisua	2023ko pisua	Bar. 2023/2022	2022ko pisua	2023ko pisua	Bar. 2023/2022	
Guztira	100,0	100,0	2,9	100,0	100,0	4,2	100,0	100,0	0,8	36,9
Bidasoa Behea	10,8	11,1	6,3	14,4	14,8	7,3	4,7	4,7	0,8	15,8
Debabarrena	6,6	6,4	0,2	5,8	5,5	-0,6	7,8	7,9	1,3	45,4
Debagoena	13,2	13,3	3,3	9,6	9,6	4,5	19,2	19,5	2,4	54,2
Donostialdea	13,5	13,2	0,3	15,3	14,8	0,5	10,6	10,5	-0,4	29,4
Goierni	16,2	16,6	6,0	10,4	11,2	11,5	25,5	25,9	2,4	57,5
Oarsoladea	7,4	7,1	-0,8	7,3	6,9	-1,3	7,5	7,5	0,1	38,8
Donostia	16,0	16,2	4,4	22,8	22,6	3,7	4,9	5,3	9,5	12,1
Tolosaldea	7,7	7,5	-0,1	6,4	6,5	6,1	9,9	9,1	-6,6	45,1
Urola Kosta	8,7	8,5	1,5	8,0	8,0	4,1	9,8	9,5	-1,9	41,0